

# ABIAN JARRI DA OARSOALDEAN EKONOMIA ZIRKULAR BATERAKO TRANTSIZIOARAKO BIRATU PROIEKTUA

*Posted on 19/07/2024 by Naider*

**Category:** [Albistea](#)

**Tags:** [Ekonomia zirkularra](#), [Lehiakortasun zirkularra](#), [Oarsoaldea](#)

Aste honetan hasi dugu **Oarsoaldean ekonomia zirkular baterako trantsiziorako [BIRATU](#) proiektua**. Ivan de Torresek eta Haizea Agirrek bi formazio saio eman dizkiete [Oarsoalde Garapen Agentziako](#) teknikariei, ekonomia zirkularraren kontzeptu teorikoak errepasatu eta Oarsoalde eskualdeko enpresetan lehiakortasun zirkularraren ikuspegia aplikatzeko aukerak aztertuz.

Datozen hilabeteetan hainbat sektoretako enpresak bisitatuko ditugu, NAIDERen [CICLO metodologia](#) aplikatzeko eta ekonomia zirkularraren ikuspegiaren bidez lehiakortasuna areagotzeko ekintza zehatzak identifikatzeko.

